



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Udal Kultur Etxea (Basauri)

Harreman Publikoetako lanposturako lan-poltsa bat sortzeko hauteketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak eta deialdia.

2023ko martxoaren 31ean Basauriko Udal Kultur Etxearen Presidenteak Ebazpena onetsi du, erabakien atalean honako hau dioena:

Lehenengoa: Harreman Publikoetako lanposturako lan-poltsa bat eratzeko prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak eta deialdia onartzea.

Bigarrena: Xedapen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea.

Basaurin, 2023ko maiatzaren 2an.—Basauriko Udal Kultur Etxearen Presidenteak,
María Larrinaga Artetxe

**HARREMAN PUBLIKOETAKO LANPOSTUAREN
LAN-POLTSAREN DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK****Lehenengoa. — Deialdiaren xedea**

Deialdi honen xedea da Harreman Publikoetako Lan Poltsa bat eratzea Basauriko Udalaren Kultur Etxean, lehiaketa bidezko sarrera libreko sistemaz. Puntuaziorik handiena duten 10 pertsonen osatuko dute lan-poltsa. Hautaketa-prozesua gainditzen duten izangaien zerrenda osatu eta gehienez 5 urtez erabili ahal izango da.

- C1 kategoria.
- Euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-datarik gabe.

Bigarrena. — Lanpostuaren eginkizunak

Basauriko Udalaren Kultur Etxeko komunikazio-politika planifikatu, kudeatu eta antolatzea, baita jarduera zinematografikoa ere:

- Basauriko Udalaren Kultur Etxeak komunikabideekin duen harremana, bai prentsa idatziarekin, bai irrati eta telebistarekin.
- Basauriko Udalaren Kultur Etxearen publizitatea, baliabideak diseinatzeko, sortzeko, ekoizteko eta kudeatzeko prozesu osoan.
- Zinema-programazioa.
- Social Antzokiko zerbitzu-enpresekin koordinatzea, ikusleak kokatzeari, proiektzioari eta leihatilako langileei dagokienez.
- Social Antzokiko lagunen kluba.
- Social Antzokiaren webgunean dagoen informazio orokorra kudeatzea, testuak idaztea, material grafikoa prestatzea eta produkzioaren jarraipena egitea.
- Zeregin horiek guztiak nagusiek agindutako eskumenen barruan egitea.

Hirugarrena. — Hautagaien betekizunak

1. Lehiaketan onartua izateko eta, hala badagokio, parte hartzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Europar Batasuneko estaturen bateko nazionalitatea izatea, edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko tratatuen arabera, langileen joan-etorri askea aplikagarri zaion estaturen bateko nazionalitatea izatea.
- b) 16 urte beteta izatea eta erretiratzeko adina ez izatea.
- c) Lanpostuaren berezko eginkizunak normaltasunez betetzea eragozten duen gaitasunik edo akats psikiko edo fisikorik ez izatea.
- d) Diziplina-espediente bidez Estatuako, autonomia-erkidegoko edo tokiko administrazioetako zerbitzutik bereizita ez egotea, eta funtzio publikoak betetzeko gaitasunik gabe ez egotea.
- e) Batxilergoko titulua, titulu teknikoa edo baliokidea izatea. Atzerrian lortutako titulazioak dituzten izangaiek egiaztatu beharko dute badutela dagokion baliozkotzea edo, hala badagokio, homologazioa.
- f) Indarrean dagoen araudiaren arabera, ezgaitasuneko edo bateraezintasuneko legezko kausaren batean sartuta ez egotea, horrek ematen dion aukera-eskubidea salbu utzita.
- g) Administrazio-agiriak emateko tasa arautzen duen 10. ordenantza fiskaleko 6. artikuluko taulako 17. kontzeptuan araututako tasa ordaindu izatea (Basauriko Udalaren eta bere erakunde autonomoen zerbitzura jardungo diren langileak hautatzeko prozesuetan azterketa-eskubideengatik ordaindu beharreko tasak). C1 taldeko tasaren zenbatekoa 14 euro da, eta honako kontu-zenbaki honetan ordaindu beharko da:

— ES70 2095 0028 8220 2801 2979



- Eskabidearekin batera aurkeztu beharko da tasa ordaindu izanaren egiaztagiria.
- Langabezian daudenak tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira, eta lan-bizitzaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute hori egiaztatzeko.

2. Onartuak izateko, izangaiek eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen bete beharko dituzte oinarri hauetan jasotako baldintza orokorrak, baina nahikoa izango da eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela adieraztea.

Laugarrena. — Eskabideak aurkeztea

Izangaiek eskabide-orria aurkeztu beharko dute hautaketa-prozesuan parte hartzeko, eta bertan adierazi beharko dute hirugarren oinarriko baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean betiere.

Basauriko Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira eskabideak, 10 egun balioduneko epean, deialdiaren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean agertzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Internet bidez ere egin ahal izango da eskaera, Basauriko Udalaren egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen eskabidea beteta: <https://sede.basauri.eus>.

Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. eta 66. artikuluetan zehaztutako moduan ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

Social Antzokia/Kultur Etxearen web-orrian, hautaketa-prozesuari eta horren ondoriozko egintzei buruzko informazioa emango da, jakinarazpen eta komunikazio ofizialen ondorioetarako.

Bosgarrena. — Izangaiek onartzea

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Erakunde Autonomoko presidentek ebazpena emango du, eta onartutzat emango da izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda. Erakunde Autonomoaren iragarki-oholean eta Social Antzokiaren webgunean argitaratuko da ebazpen hori, eta bost egun balioduneko epea emango da aipaturiko baztertzeen aurka erreklamazioa jartzeko eta baztertzea eragin duten hutsegiteak edo agiriak zuzentzeko.

Eskabidea epez kanpo aurkeztuz gero, hori ezin izango da zuzendu, eta ezin izango da betekizunen eta merezimenduen egiaztagiririk aurkeztu eskabideak aurkezteko epe-tik kanpo.

Erreklamazioak aurkezteko epe hori igarota, Erakunde Autonomoko presidentek beste ebazpen bat emango du, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Kalifikazio Epaimahaiaren osaera onartzeko.

Aurrekoa gorabehera, ebazpen horren ondorengo edozein unetan Epaimahaiak ikusten badu edozein izangairen eskaera edo dokumentazioa okerra edo faltsua dela, eta izangaia baztertzeko arrazoia bada hori, zuzendu ezinezkotzat joko da beti, eta izangaia baztertzeko proposatuko dio Epaimahaiak Erakunde Autonomoko presidenteari.

Onartutako pertsonen behin-behineko zerrenda automatikoki behin betikotzat joko da, erreklamaziorik aurkezten ez bada. Erreklamaziorik balego, beste ebazpen baten bidez onetsi edo ezetsiko dira, bost eguneko epean. Behin betiko zerrenda Social Antzokiaren webgunean argitaratuko da (socialantzokia.eus).

Seigarrena. — Kalifikazio Epaimahaia

1. Epaimahaiaren osaera urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 60. artikuluan ezarritakoaren arabera izango da, eta presidente batek, idazkari batek eta hiru kidek osatuko dute. Izangai guztiei jakinaraziko zaie Epaimahaiaren osaera, onartuen ebazpenean.

2. Nolanahi ere, Kalifikazio Epaimahaiak aholkulariak sartu ahal izango ditu bere lanetan. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetara mugatuko dira, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 31.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.



3. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen bada, Kalifikazio Epaimahaiko kideek uko egingo diote beren zereginari, eta Korporazioko presidenteari jakinarazi beharko diote hori. Izangaiek errekusatu ahal izango dituzte epaimahaikideak, aipatutako legearen 24. artikuluan ezarritakoaren arabera, aurreko artikuluan aurreikusitako kausaren bat gertatzen denean.

4. Kalifikazio Epaimahaiko kide guztiek hitza eta botoa izango dute. Kalifikazio Epaimahaiaren erabakiak bertaratuen botoen gehiengoz hartuko dira.

5. Kalifikazio Epaimahaiko kide titularrez gain, ordezkioak ere egongo dira. Kalifikazio Epaimahaiko presidente, idazkari eta kide izateko izendatu beharko dira ordezkio horiek.

6. Kalifikazio Epaimahaia ezin izango da eratu, eta ezingo du jardun, baldin eta bertaratzen ez badira kideen erdiak baino gehiago, titularrak zein ordezkioak hartuta.

7. Prozedurako edozein unetan Kalifikazio Epaimahaiari jakinaraziko balitzaio izan-gairen batek ez dituela betetzen deialdian eskatutako baldintzak, deialditik kanpo utzi-ko da pertsona hori, interesatuari entzun ondoren, eta egun berean jakinaraziko zaio lehiaketarako deia egin duen agintaritzari. Antzematen diren egitatezko akatsak edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edo interesdunak eskatuta.

Zazpigarrena.— Hautaketa-prozesua

Izangaiek lehiaketa-sistemaren bidez hautatuko dira. Sistema horretan, eskabidea-rekin batera behar bezala egiaztatutako merezimenduak baloratuko dira, gehienez ere 100 punturekin.

Ezingo da alegatu eskabidean aurkeztu eta adierazitako epeen barruan justifikatuz bestelako merezimendurik, ez eta eskabidean alegatu izan arren merezimenduen egiazt-giriak aurkezteko epearen ondoren justifikatutakorik ere.

Epaimahaiak dokumentazio osagarria aurkezteko eskatu ahal izango die izangaiei, alegatutako merezimenduetatik zerbait argi geratzen ez bada.

a) Prestakuntza: atal honetan 39 puntu emango dira gehienez.

— Lanpostuaren berezko eginkizunekin lotutako titulu akademiko ofiziala izatea-gatik: Informazio Zientzietako Lizentzia, Komunikazioko Gradua, Kazetaritza-ko Gradua, Publizitateko eta Harreman Publikoetako Gradua edo Ikus-entzu-nezko Proiektuen eta Ikuskizunen Ekoizpen eta Errealizazioko Gradua edo antzekoak izateagatik: 10 puntu titulu bakoitzeko, gehienez 20 puntu.

— Zinemagintzaren arloan, zentro ofizialetan (herri-administrazioetako eskola edo institutuetan, herri-administrazioetan, unibertsitateetan, Hezkuntza Ministe-rioaren edo autonomia-erkidegoetako hezkuntza-sailen mendeko ikastetxee-tan, elkargo profesionaletan, mutualitateetan, fundazioetan, elkarteetan eta federazioetan) emandako edo homologatutako prestakuntza-ikastaroak jaso-tzeagatik. 5 puntu ikastaro bakoitzeko, gehienez 15 puntu.

— Komunikazioaren arloan, zentro ofizialetan (herri-administrazioetako eskola edo institutuetan, herri-administrazioetan, unibertsitateetan, Hezkuntza Ministe-rioaren edo autonomia-erkidegoetako hezkuntza-sailen mendeko ikastetxee-tan, elkargo profesionaletan, mutualitateetan, fundazioetan, elkarteetan eta federazioetan) emandako edo homologatutako prestakuntza-ikastaroak jaso-tzeagatik. 2 puntu ikastaro bakoitzeko, gehienez 4 puntu.

b) Euskara: atal honetan gehienez 11 puntu emango dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera nor-malizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 6/1997 Dekretuaren 31.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, honela puntuatuko da atal hau:

— 3. hizkuntza-eskakizuna edo hortik goragokoa izatea, edo titulu edo ziurtagiri baliokidea izatea: 11 puntu.



- 2. hizkuntza-eskakizuna edo titulu edo ziurtagiri baliokidea izatea, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera. 8 puntu.
- 1. hizkuntza-eskakizuna edo titulu edo ziurtagiri baliokidea izatea, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera. 5 puntu.
- c) Esperientzia: atal honetan 50 puntu emango dira gehienez.
 - Kategoria bereko edo goragoko lanpostuetan esperientzia profesionala izatea kultura-komunikazioaren esparruan, bete nahi den plazari esleitutakoen antzeko eginkizunak eta zereginak dituzten erakunde pribatu eta/edo publikoetan. 0,20 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 20 puntu.
 - Kategoria bereko edo goragoko lanpostuetan esperientzia profesionala izatea komunikazioaren esparruan, bete nahi den plazari esleitutakoen antzeko eginkizunak eta zereginak dituzten erakunde pribatu eta/edo publikoetan. 0,20 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 10 puntu.
 - Zinema programatzeko lanetan esperientzia izatea, bete nahi den plazari esleitutakoen antzeko eginkizunak eta zereginak dituzten kultura-erakunde publiko eta/edo pribatuetan. 0,20 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 12 puntu.
 - Marketin digitalean esperientzia profesionala izatea. 0,20 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 8 puntu.

Hilabete osoak bakarrik baloratuko dira. Lanaldi partzialen kasuan, lanaldiaren proportzioan emango da puntuazioa, betiere lanaldia % 50ekoa edo gehiagokoa bada. Ondorio horietarako, honako hauek baloratuko dira: hautagaiak eszedentzian egon diren denbora senitartekoak zaintzeko edo genero-indarkeriagatik; amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familiakoa eta lana erantzukidetasunez uztartzeko helburuz lanaldi-murrizketan edo baimenarekin egondako denbora; eta emakumezko langile publikoek genero-indarkeriagatik baimenak baliatu dituzten denbora, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20. artikulua arabera (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legeak aldatua).

Zortzigarrena. — Gaingiditutakoen zerrenda. Dokumentazioa aurkeztea

Hautaketa-prozesuaren azken kalifikazioa lehiaketa-fasean lortutako puntuazio guztien batura izango da. Puntuazio-berdinketak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2015 Legean ezarritako irizpideen arabera ebatziko dira. Berdinketak jarraitzen badu, puntuaziorik handiena lortu duenaren alde ebatziko da. Eta azkenik, berdinketak jarraitzen badu, Epaimahaiak zozketa bidez erabakiko du.

Ekitaldi publikoan egindako zozketa bakar baten bidez ebatziko da berdinketa. Alfabetotik bi letra aterako dira ausaz, eta berdinketak lehen abizenaren ordena alfabetikoaren arabera ebatziko dira, ateratako bi letretatik abiatuta. Ondorio horietarako, «ZZ» letren ondoren «AA» letrak agertuko dira. Hautagai bakar baten lehen abizena ez bada hasten ateratako bi leterekin, hurrengo abizenara joko da ordena alfabetikoan, eta «ZZ» letren atzetik «AA» letrak datozela ulertuko da. Zozketaren emaitzak Social Antzokiaren webgunean argitaratuko dira.

Hautaketa-prozesua amaitutakoan, Epaimahaiak emaitzak argitaratuko ditu, puntuazioaren arabera, eta Erakunde Autonomoko presidenteari bidaliko dio zerrenda hori, poltsa eratzeko berariazko proposamenarekin. Proposamen hori loteslea izango da, baina berrikusi egin ahal izango da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusitakoaren arabera.



Izangaiek 10 egun balioduneko epea izango dute egokitzen jotzen dituzten erreklamoak aurkezteko, eta Epaimahaiak, hala badagokio, behin betiko zerrenda argitaratuko du proposatutako izangaiekin, lan-poltsa osatzeko. Pertsona horiek 5 egun balioduneko epea izango dute honako agiri hauek aurkezteko:

1. Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.
2. Deialdian eskatzen diren baldintza espezifikoaren frogagiriak (titulazio akademiakoaren fotokopia konpultsatua).

Adierazitako epearen barruan, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, lan-poltsan parte hartzeko proposatutako izangaiek ez badute aurkezten beren dokumentazioa edo ez badituzte betetzen eskatutako baldintzak, ezin izango dira lan-poltsan sartu eta beren jarduera guztiak balioz gabetuta geratuko dira. Nolanahi ere, erantzukizuna izan dezakete hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidean informazioa faltsutzeagatik.

Bederatzigarrena. — Aldi baterako lan-poltsa

Hautaketa-prozesu honen emaitzatik lan-poltsa egingo da, eta gehienez 5 urteko iraupena izango du. Puntuaziorik handiena lortu duten hamar izangaiekin osatuko da lan-poltsa, eta Basauriko Udalaren lan-poltsak arautzen dituen araudian xedatutakoaren arabera kudeatuko da.

Hamargarrena. — Datu pertsonalen babesa

Hautaketa-prozesuan bildutako edo sortutako datu pertsonalak datuak babesteari buruz indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera tratatuko dira.

Eskabideetan ematen den informazio guztia fitxategi batean sartuko da, eta fitxategi hori soilik erabiliko da hautaketa-prozesua kudeatzeko eta aldi baterako langileak kontratatzeke eta izendatzeko sortzen den lan-poltsa kudeatzeko.

Deitutako plazak lortu nahi dituzten pertsonak berariaz onartuko dute emandako datuak tratatzea, baldin eta datu horiek segurtasun-neurriak behar izan badituzkete eta hautaketa-prozesurako beharrezkoak badira.

Eskabidean agertzen diren helbidea, telefonoak eta posta elektronikoa baliozkotzat joko dira. Eskaera egin duenaren erantzukizuna dira, soil-soilik, datu horien kontsignazioan egon daitezkeen akatsak, bai eta horietan emandako aldaketa oro Epaimahaiari jakinaraztea ere.

Jakinarazpenak egin ahal izateko, helbide gisa hartuko da eskabidean adierazitakoa, salbu eta geroago beste bat espresuki eta modu frogagarrian jakinarazten bazaio deialdia egin duen agintaritzari.

Hamaikagarrena. — Gorabeherak

Epaimahaiak ahalmena izango du sortzen diren zalantzak ebazteko eta oinarri hauek aurreikusten ez den guztian hautaketa-prozesua behar bezala egiteko behar diren erabakiak hartzeko.

Deialdi hau, haren oinarriak eta oinarri horietatik eta Epaimahaiaren jardunetik eratorzen diren administrazio-egintza guztiak aurkaratu ahal izango dira, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako epeetan eta moduan.